1. Getxo Kirolak 2023-2027Ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea, argitalpen honekin batera doana.

Getxon, 2024ko otsailaren 12an.—Getxo Kirolak-eko presidentea, Álvaro González Pérez



ERANSKINA
GETXO KIROLAK T.E.A-REN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA
2023-2027 ALDIA

AURKIBIDEA

- Sarrera.**
 - Aurreko oharra.*
 - Izaera juridikoa.*
 - Eskumena.*
 - Diru-laguntzen Datu-base Nazionala. DDN.*
- Esparru subjektiboa.**
- Denbora esparrua.**
- Oinarri arautzaileen eta deialdien ildo nagusiak.**
 - Betebeharra.*
 - Printzipio nagusiak.*
 - Plan estrategikoaren helburu nagusiak.*
 - Ildo estrategikoak.*
 - Emakida prozedura.*
 - Betearazpen epea.*
 - Finantzaketa.*
- Planaren jarraipena eta kontrola.**
- Urteko txostena.**
- Eskumen tituluak.**
- Gardentasuna.**
- Ildo zehatzak.**

Eranskina. — Ildo estrategikoak eta helburu zehatzak.

1. Sarrera

1.1. Aurreko oharra

Diru-laguntzen arloan indarrean dagoen legediak, azaroaren 17 ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra alegia, bultzada eta sustapen gisa ezagutu ohi den jardun publiko legeak berak ezarritako parametroen barruan garatzea du helburu nagusi gisa, aurretik kontrolatzeko eta ondoren ebaluatzeko beharrezko mekanismoak ezarriz, honako oinarritzko helburu hauekin oinarrituz:

- Interes publikoko eta interes orokorreko jarduna sustatzen laguntzea, gizarte zibil egituratuak egindakoa eta elkarte, entitate eta partikularren bitartez artikulatutakoa.
- Norbanakoen gizarteratzea eta sustapena laguntzea, gizarte zaurgarritasuneko egoera zehatz batzuetan dauden herritarrei laguntza ekonomikoak emanez.

Horretarako, jardura hori printzipio batzuen mende jartzeko betebeharra dakar legediak; printzipio horiek honako hauek dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta bazterketarik eza.
- Eraginkortasuna administrazio emailak ezarritako helburuak betetzean.



- Administrazioaren diskrezionalitatea kontrolatzea.
- Efizientzia baliabide publikoak erabiltzerakoan eta ematerakoan.

Horrela, Estatuko legeriak administrazio publikoen jarduketan eraginkortasuna hobetzeko kudeaketa-elementu eta tresna gisa ezartzen du administrazio bakoitzean Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat egin behar dela, lortu nahi diren helburuak eta ondorioak aplikazioarekin, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak erlazionatu ahal izateko, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

Dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileek dirulaguntzen plan estrategikoari egingo diote erreferentzia, eta helburuak lortzen nola laguntzen duten adieraziko dute; bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza berria ezartzea, baita Planean aurreikusi ez bada ere, eta nola eragiten dion hura betetzeari.

Gaur egun, Getxoko Udalak Getxoko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako dirulaguntzen Ordenantza orokorra dauka, 2022ko apirilaren 7tik indarrean dagoena. 2021eko abenduaren 23ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez hasierako onarpena jaso du eta behin betiko onartu dena, emandako epean ez baita erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu.

Ordenantzaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera «1.- Getxoko Udalak eta haren erakunde autonomoek, dirulaguntzak definitu aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horiek aplikatuz lortu nahi dituzten helburu eta efektuak, horiek lortzeko behar duten epea, aurreikusten dituzten kostuak eta beraien finantzaketa-iturriak. Betiere, aurrekontu egonkortasunerako helburuak bete beharko dituzte. 2.- Dirulaguntzen plan estrategikoak alkateak edo erakunde autonomoetako buruek onetsiko dituzte. Lau urteko indarraldia izango dute, arrazoitu ondoren, bestelako epea zehaztea komeni denean izan ezik. 3.- Plan estrategikoek izaera programatikoa daukate eta beraien edukiak ez du eskubiderik ez betebeharririk sortzen; beraien eraginkortasuna dirulaguntza ildoak praktikan jartzearen baldintzapean geratzen da. Besteak beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan erabilgarri dagoen diruaren baldintzapean egongo dira».

Erakund autonomoaren diru-laguntzak kudeatzeko ardura daukaten arlo eta zerbitzu guztiek plan estrategiko hau egiteko prozesuan parte hartu dute.

1.2. *Izaera juridikoa*

Diru-laguntzen plan estrategikoak izaera programatikoa daukaten kudeaketa tresna bat dira; ez dute arau izaerarik, banakakoen mailan ez dute zuzenean eragiten, eta plana onartzeak ez dio administrazioari eskubide edo betebeharririk ekartzen.

Eraginkorra izan dadin diru-laguntzen ildo desberdinen edo diru-laguntza izendunen kasuan kasuko deialdiak onartu behar dira, baita ekitaldi bakoitzerako aurrekontu aukerak ere.

1.3. *Eskumena*

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeko organo eskuduna Lehendakaritza da, Getxo Kirolak erakunde autonomoaren estatutuen 11.n) artikulua. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluan xedatutakoari dagokionez, toki-erakundearen artean eskumenak esleitzeko oinarritzko araua baita.

1.4. *Diru-laguntzen Datu-base Nazionala. DDN*

Era berean, administrazio publiko guztiek etengabe eman behar dute Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari emandako deialdiei eta dirulaguntzei buruzko informazioa, datu-base hori sortzeko gardentasun- eta publizitate-irizpide berriak behar bezala betetzeko.



Horren haritik, Kontu hartzaileak dagoeneko badu alta DDNko erabiltzaile gisa erakundeko administrari bezala, eta diru-laguntzen arloko espedienteen gainerako udal teknikari kudeatzaileak bertako erabiltzaile baimendu gisa daude erregistratuta.

2. Esparru subjektiboa

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honek aurreikusten ditu Getxoko Kirolakek arloen bitartez emandako diru-laguntzak.

3. Denbora esparrua

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honen denbora esparruari dagokionez, onartzen denetik lau urteko indarraldia izango du (2023ko ekitaldia onartzen denetik 2027. urtean dagokion datara arte). Hala ere, plana urtero, presidenteak eguneratu edo aldatu ahal izango du, jarraipen prozesuan jasotako informazio nabarmenarekin bat etorritik eta, bereziki, seigarren atalean aurreikusitako urteko txostena ikusita.

Nolanahi ere, planak berak eta planaren eguneraketek isla izango dute indarrean dagoen ekitaldiko udal aurrekontuetan IV. kapituluari jasotako gastuen aplikazio eta partidetan, bai zuzeneko diru-laguntzen kasuan, bai lehia araubide bidezko deialdiko diru-laguntzetan.

4. Diru-laguntzak emateko deialdien eta oinarri arautzaileen oinarritzko ildoak

Diru-laguntzak emateko deialdi, hitzarmen eta ebazpenen oinarritzko ildo nagusiak, plan honetan ezarritako ildo estrategiko bakoitzeko helburu zehatzak alde batera utzita, honako hauek dira:

4.1. Betebeharra

Getxo Kirolak T.E.A.-ren diru-laguntza jardun osoaren betebeharra, izateko arrazoia, honako hau da:

«Gure udalerriko gizarte zibil egituratuaren parte hartzea sustatzea, bultzatzea eta indartzea, intereseko udal kudeaketako esparruetan, elkarrekin sareak garatutako interes orokorreko proiektuak eta lanak diruz lagunduz, eta norbanakoen gizarteratzea sustatuz gizarte zaurkortasuneko egoera zehatzetan dauden herritarrei laguntza ekonomikoak emanez, betiere aukera berdintasunaren printzipioaren defentsan».

4.2. Printzipio nagusiak

Estatu mailako oinarritzko esparruko diru-laguntzen arautze juridikoak jarduteko zenbait printzipio nagusi finkatu zituen; Plan Estrategikoaren oinarritzko elementuak dira eta diru-laguntzen arloan udal kudeaketa arautu behar dute.

- a) Publizitatea eta lehia, funts publikoen banaketan lehia eta berdintasuna bermatuko dituen alde aurreko deialdiaren bitartez; nolanahi ere, baliteke zenbait laguntza zuzenean ematea; horretarako, arau aplikagarri bakoitzean ezarritakoarekin bat etorritik, aurrekontua eskuragarri egon beharko da.
- b) Objektibotasuna funts publikoan esleitzeko prozesuan, lehia kasuetan jarduerak eta proiektuak aukeratzeko irizpideak eta horiek zenbatzeko haztapen metodoak ezarritik.
- c) Berdintasuna eta bazterketarik eza herritarren, sektoreen eta komunitateen artean.
- d) Gardentasuna baliabide publikoak banatzeko prozesuan, bai emakida prozesuan, bai emaitzak argitaratzeko prozesuan.
- e) Eraginkortasuna helburuak betetzean, erakunde kudeatzaile, unitate eta zerbitzuek emandako diru-laguntzen jarraipen eta kontrola egiteko prozedura bat ezarritik.



- f) Efizientzia baliabide publikoak erabili eta banatzerakoan, diru-laguntzen balorazioan eta proiektu eraginkorrenei ematerakoan. Printzipio horiek guztiak aplikagarriak dira udalaren diru-laguntza programa eta ildoen multzoari dago-kienez.

4.3. Helburu nagusiak

Honako hauek dira Plan Estrategiko honen eta Getxo Kirolak TEAren 2023-2027 ekitaldietarako laguntzen eta dirulaguntzen ildoen helburu orokorrak:

1. Kirola eta jarduera fisikoa sustatu, garatu eta sustatzea Getxoko udalerrian.
2. Hastapen-kirola herritarrengana hurbiltzea, kirol-jarduera bultzatzeko ohiko instalazioetan eta/edo kalean, ekitaldien bidez.
3. Oinarrizko kirolean eta lehiaketa-kirolean diharduten teknikarien prestakuntza sustatzea, eta
4. Kirol-proiektu estrategikoak sustatzea.

4.4. 2023-2027 aldirako Jardun Ildo Estrategikoak

Getxo Kirolak TEAren dirulaguntzen ildo edo helburu espezifikoak biltzen dituen Plan Estrategiko honetan jasotako jarduera-ildo estrategikoak honako hauek dira:

Eskumen arloa	Ildo estrategikoa (2023-2027)	Helburuak zehatzak (2023-2027)
TEA Getxo Kirolak	1. Kirolaren sustapena	1.1. Oinarrizko kirolaren garapena.
		1.2. Lehiaketako kirol jarduerak eta errendimenduko kirolariak.
		1.3. Gertaerabidezko jarduerak.
		1.4. Kiroleko eta jarduera fisikoko ekitaldiak.
		1.5. Bertako kirolaren sustapena.
		1.6. Muturreko kiroleko jarduerak.
		1.7. Herri jaietako kirol jarduerak.
		1.8. Getxo markako ekipazioak.
		1.9. Kirol proiektu estrategikoak.
		1.10. Urezko kirol instalazioen eta materialen inbertsioa.
		1.11. Oroitzapenezko ekitaldiak.
		1.12. Emakumeen kirola sustatzea
		1.13. Alarma-, larrialdi- eta hondamendi-egoerak

Ez dira sartzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen aplikazio-eremuan sartzen ez diren elkarteen alde Getxo Kirolakek ohiko nahiz ezohiko kuotengatik egiten dituen diru-ekarpenak, ezta udal talde politikoek aldeko diru-laguntzak.

Ildo bakoitzerako aurreikusitako zenbatekoak ekitaldi bakoitzerako udalaren Aurrekontu Orokorrean jasotakoak izango dira.

Jardun ildo bakoitza garatzeko kasuan kasuko urteko aurrekontuan esleipen zehatza jaso beharko da, eta horixe izango da kasu bakoitzerako muga.



4.5. *Emakida prozedura*

Getxo Kirolak TEAk Diru-laguntzen Lege Orokorrean jasotako printzipio eta prozedurak aplikatu beharko dituzte diru-laguntzen eta laguntzen esparruan; diru-laguntza mota hauek ezarri dira:

- Lehia bidezko konkurrentzia erregimenean emandako diru-laguntzak.
- Aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza izendunak.
- Zuzenean emandako diru-laguntzak, interes publikoko arrazoiak, arrazoi sozialak, ekonomikoak edo humanitarioak direla medio edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk direla medio, deialdi publikoa egitea oztopatzen badute.
- Lege mailako agindu baten ondorioz eman beharreko edo zenbateko jakin bateko diru-laguntzak.

Oro har, diru-laguntzak lehia konkurrentziako erregimenean emango dira; horrez gain, udal aurrekontuetan diru-laguntza izendun gisa ageri direnak zuzenean eman ahaliko dira. Diru-laguntzaren izaera, premia edo interes publikoa dela medio emakida prozedura desberdina erabiltzea beharrezkoa bada, orduan beste prozedura bat erabili ahaliko da, indarrean dagoen legediarekin bat etorritz, aldez aurretik kasuan kasuko justifikazioa egin ondoren.

Deialdietan, araututako diru-laguntza ildo bakoitzerako prozedura egokia zein den zehaztu beharko da.

4.6. *Betetze epeak*

Oro har, udal diru-laguntzek urtebeteko betetze epea izango dute, eta betetze ondorioetarako urte naturaleko epea aukeratu ahaliko da.

Inguruabarrak direla medio komenigarria baldin bada betetze epea diru-laguntza eman den ekitaldiaren hurrengora arte luzatzea edo betetze epe nagusia aldatzea, orduan inguruabar horiek berariaz jaso beharko dira kasuan kasuko diru-laguntzen ebazpen, hitzarmen edo deialdietan, betiere posiblea baldin bada aurrekontu araudiari eta indarrean dagoen gainerako araudi aplikagarriari dagokienez.

Udal aurrekontuetan onartuz gero, urte anitzeko diru-laguntzak ematea aurreikusi da.

4.7. *Finantzaketa*

Plan honetako laguntza ildo eta diru-laguntzen eraginkortasuna lortzeko kasuan kasuko urteko aurrekontuan nahikoa kreditu egon behar da.

Edozein motatako diru-laguntza eman aurretik kasuan kasuko gastu baimena izapidetu beharko da, salbu eta aldez aurreko izapidetze prozedura bitartezko diru-laguntzak izapidetzen badira; kasu horretan eskatu eta ondoren kredituko espediente ziurtatuari atxikiko zaio, eta deialdia gauzatze unean kreditu eskuragarritasun errealearen baldintzapean egongo da.

5. **Diru-laguntzen plan estrategikoaren kontrola eta jarraipena**

Getxo Kirolak T.E.A.-ko Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategiko honen jarraipen eta kontrol lanak urtero egingo dira, bi alderditan:

- Emandako diru-laguntzen kontrol ekonomiko eta finantzarioa eta legezkotasuna; udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiaren arduren artean egongo da, eta indarrean dagoen legedian eta, hala badagokio, horretarako garatutako araudian bertan jasotako baldintzen arabera egingo dira kontrol horiek.



- Planaren kontrol eta jarraipena; diru-laguntzen unitate kudeatzaile bakoitzak egin beharreko justifikazio memorian oinarrituz egingo da, kasuan kasuko ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoan.

Justifikazio memoria horrek honako zehaztasun hauek jaso beharko ditu:

- Diru-laguntza mota eta ildo bakoitzari buruzko informazioa, emandako, justifikatutako, baztertutako eta itzultitako diru-laguntzak (edo itzultzeko prozeduran daude-nak) jasoko dituen.
- Helburu zehatzen betetze maila, kasuan kasuko adierazle eta betetze epeen arabera.
- Benetako kostuak ekintza planean aurreikusitakoari dagokionez.
- Eragina izan nahi zuen errealtatean izandako eragina eta ondorioak.
- Plana aplikatzearen ondorioak aurrekontuetan eta finantzetan.
- Ondorio edo balorazio globala.
- Hurrengo Diru-laguntzen Plan Estrategikoa prestatzeko iradokizunak.

6. Urteko txostena

Urtero txosten bat aurkeztuko da Presidenteari, aurreko atalean adierazitako dokumentazioan oinarrituz egindakoa, ildoei dagokienez; txosten horretan egindako ekintzak, emandako diru-laguntzen laburpena eta horien balorazio globala jaso beharko da.

7. Eskumen tituluak

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean ezarritakoa kontuan hartu beharko da, baita Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta dagokion garapen araudian ezarritakoa ere.

Ildo estrategiko bakoitzaren eskumen tituluak ulertzerakoan, nolanahi ere, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen araudi garapenak horri dagokienez egingo duen gaikuntza baldintza gisa hartu behar da, baita Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Lege autonomikoak eta garapen araudiak ere.

Nolanahi ere, planak eta haren eguneratzeek isla izango dute IV. kapituluko eta VII. kapituluko gastu-partida eta -aplikazioetan.

8. Gardentasuna

Getxo Kirolak TEAk emandako diru-laguntza oro, ildo estrategiko, laguntza programa eta deialdi bakoitzean, urtero argitaratuko da bai DDN-n, bai udal webgunean; erakunde hartzailea, laguntzaren zenbatekoa eta jasoko duen ekintza edo proiektua ere adierazi beharko dira.

Emandako diru-laguntzak ez dira argitaratuko onuradunaren datuak argitaratzea, diru-laguntzaren xedeari lotuta, pertsona fisikoen norberaren edo familiaren intimitatearen edo ohorea zaindu eta errespetatzearen aurkakoa baldin bada, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilarri buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa dela bide, eta araudi arautzailean aurreikusi bada.



9. Jardun ildo estrategikoak

ERANSKINA

Planaren eranskin gisa A2an Ildo Estrategikoaren Fitxak jaso dira (bana 13 ildo estrategiko bakoitzeko), eta bertan ildo estrategikoaren helburu estrategikoa eta udal diru-laguntzen helburu zehatzak ageri dira, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartu zuen uztailaren

21eko 887/2006 Errege Dekretuko 12.1 a), b) eta c) artikuluek eskatutako edukiarekin.

A1. Jarduera eta proiektuetatik diruz lagun daitekeen kopurua

Oro har, diruz lagun daitekeen gastua diruz lagundutako ekintza edo proiektuaren gastu osoaren ehuneko jakin bat izango da, ildo estrategiko guztietarako; finantzaketaren gehieneko ehuneko hori ildo bakoitzerako ezarriko da kasuan kasuko deialdian edo ebazpen edo hitzarmenaren testuan.

Salbuespen gisa, diruz lagundu ahalko den kopuruaren gehieneko muga diruz lagundutako ekintza edo proiektuaren gastu osoa izatea finkatu ahalko da (%100); horrelakoetan, deialdian edo ebazpen edo hitzarmen testuan jaso beharko da, eta kudeaketa zerbitzuaren txosten justifikagarria aurkeztu beharko da.

A2. Ildo Estrategiko bakoitzaren xehetasun Fitxak

A2 Eranskina

A2 Eranskina. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2027
Eskumen-Arloa: T.E.A. Getxo Kirolak
1. Ildo Estrategikoa Kirolaren Sustapena (eta Jarduera Fisikoa)
Helburu estrategikoa
Kirola eta jarduera fisikoa sustatu, garatu eta sustatzea Getxoko udalerrian, eta hastapeneko kirola herritarrengana hurbiltzea, kirol-jarduera bultzatzeko ohiko instalazioetan eta/edo kalean, ekitaldien bidez. Halaber, oinarritzko kirolean eta lehiaketa-kirolean diharduten teknikarien prestakuntza sustatzea eta kirol-proiektu estrategikoak sustatzea.
Helburu espezifikoa
— Hastapeneko kirol-eskolak sustatzea, gutxieneko praktikatzaileri kopuru batekin, eta udalerrian jarduera fisikoa sustatzea eta kirol-jarduera ikusaraztea.
— Kirol-elkarte, -fundazio eta -kluben jarduera sustatzea kategoria federatuetan, eta udalerriko kirol-jarduera ikusaraztea.
— Lehiaketa, txapelketa eta goragoko kategorietara sartzeko faseetan sartzen diren kategoria federatuetako klubak jarduerari laguntzea, hala nola gerora sortutako jarduerari.
— Jarduera fisikoa eta kirola sustatzea, lehiaketa- eta partaidetza-ekitaldiak kudeatuz, eta klubak eta elkarteak udalerrian kirol-jarduera sustatzen inplikatzeko.
— Euskal jolas eta kirol tradizionalen zerikusia duten ekitaldiak eta jarduerak berreskuratzea, mantentzea eta garatzea bultzatzea, bai eta euskararen erabilera eta jarduera inklusiboak sustatzea ere.
— Kirolariek arrisku-kiroletan edo muturreko kirolean egiten dituzten jarduerak bultzatzea eta laguntzea
— Herri-jarduera fisikoa sustatzea, udalerriko herri-jaietan kirol-jarduerak egiten lagunduz
— Klub eta elkarteak laguntzea Getxo Marka osatzen duten ekipazioak lortzen, udalerrian irudi uniformeak sortzeko
— Getxoko Arlo Estrategikoen proiektuen barruan sartzen diren kirol-ekitaldiak eta -jarduerak babestea eta nazioartean Getxoren irudia sustatzea, udalerrian egiten diren kirol-ekitaldi ofizialak finantzatzeko laguntzaren bidez.
— Itsas kiroleko klubak erabiltzen dituzten materialak eta flotak egoera ezin hobean berritzea eta mantentzea sustatzea
— Getxon Kirolaren erreferente bihurtu diren klub historikoen oroitzapenezko ekitaldien antolaketa sustatzea



A2 Eranskina. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2027
Eskumen-Arloa: T.E.A. Getxo Kirolak
1. Ildo Estrategikoa Kirolaren Sustapena (eta Jarduera Fisikoa)
— Emakumeen kirola sustatzea eta bultzatzea, beren jarduera edo emakumeen parte-hartze handiko beste kirol-ekitaldi batzuk egiten dituzten klub eta erakundeei lagunduz.
— Kirol-klubek eta/edo -elkarteek izandako kalte ekonomikoa arintzea, agintari publikoek alarma-, larrialdi- eta hondamendi-egoerak direla-eta hartutako neurrien ondorioz.
Lortu nahi den ondorioa
— Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
— Hastapeneko kirol-eskolak sustatzea, gutxieneko praktikatzaile kopuru batekin
— Kirol-kluben jarduera sustatzea kategoria federatuetan
— Kirol-kluben bidez ekitaldiak sustatzea eta jarduera fisikoa eta kirola sustatzea
— Bertako kirola sustatzea
— Muturreko kirola sustatzea
— Herri-jaietan kirol-jarduerak sustatzea
— Getxo marka sustatzea udalerriko klub eta elkarteetako ekipamenduen bidez
— Kirol nautikoaren hastapeneko kirol-eskolak sustatzea, gutxieneko praktikatzaile kopuru batekin
— Emakumeen kirola sustatzea, bai eta kirol ekitaldi eta jardueretan parte hartzea ere.
— Udalerrian kirol-modalitatea bistaratzea
— Getxoko errendimenduko kirolarien parte-hartzea sustatzea
— Kanean jarduera fisiko herrikoi ez-lehiakorra sustatzea eta klubek kirol-espazio ez-konbentzionaletan (kanean) egiten duten jarduera bistaratzea.
— Herri jarduera fisiko ez-lehiakorra sustatzea eta udalerrian kirol modalitate nautikoa bistaratzea
— Udalerrian jarduera fisiko lehiakorra sustatzea eta kirol-modalitatea bistaratzea
— Kirol-proiektu eta -jarduera estrategikoak finantzatzea
— Oroitzapenezko ekitaldiak finantzatzen laguntzea
— Emakumezkoen klub eta taldeei laguntzea
— Sustapeneko kirol-jarduerari bere modalitate guztietan eustea
Lortzeko epea
Urtekoa
8. linea lau urtean behin
Emateko prozedura
Lerro estrategikoak gauzatzeko emakida-prozedura norgehiagoka bidez egingo da, eta beste lerroen batean.
Izenduna.
Lortu nahi den efektuaren lorpena neurtzeko modua (helburu espezifiko bakoitzerako adierazlea)
1. lerroa
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Hastapeneko kirol-eskolak sustatzea, gutxieneko praktikatzaile kopuru batekin.
3. Udalerrian kirol-modalitatea bistaratzea.
2. lerroa
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Kirol-kluben jarduera sustatzea kategoria federatuetan.
3. Udalerrian kirol-modalitatea bistaratzea.



A2 Eranskina. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2027
Eskumen-Arloa: T.E.A. Getxo Kirolak
1. Ildo Estrategikoa Kirolaren Sustapena (eta Jarduera Fisikoa)
4. Errendimenduko kirolarien parte-hartzea sustatzea Getxon.
3. <i>lerroa</i>
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Kirol-kluben jarduera sustatzea kategoria federatuetan.
4. <i>lerroa</i>
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Kirol-kluben bidez ekitaldiak sustatzea eta jarduera fisikoa eta kirola sustatzea.
3. Kalean lehiarik gabeko jarduera fisiko herrikoia sustatzea eta klubek kirol-espazio ez-konbentzio-naletan (kalean) egiten duten jarduera bistaratzea.
5. <i>lerroa</i>
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Bertako kirola sustatzea.
6. <i>lerroa</i>
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Muturreko kirola sustatzea
7. <i>lerroa</i>
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Herri-jaietan kirol-jarduerak sustatzea
8. <i>lerroa</i>
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Getxo marka sustatzea udalerriko klub eta elkarteetako ekipamenduen bidez
9. <i>lerroa</i>
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Kirol-proiektu eta -jarduera estrategikoak finantzatzea
3. Udalerrian jarduera fisiko lehiakorra sustatzea eta kirol-modalitatea bistaratzea.
10. <i>lerroa</i>
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Kirol nautikoaren hastapeneko kirol-eskolak sustatzea, gutxieneko praktikatzaile kopuru batekin.
3. Herri-jarduera fisiko ez-lehiakorra sustatzea eta udalerrian kirol-modalitate nautikoa bistaratzea.
11. <i>lerroa</i>
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Oroitzapenezko ekitaldiak finantzatzen laguntzea
12. <i>lerroa</i>
1. Erregistratutako eskaera gehienei erantzutea
2. Emakumeen kirola sustatzea
3. Emakumezkoen klub eta taldeei laguntzea
4. Kirol-ekitaldi eta -jardueretan emakumeen parte-hartzea sustatzea
13. <i>lerroa</i>
1. Sustapeneko kirol-jarduerari bere modalitate guztietan eustea.



A2 Eranskina. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2027
Eskumen-Arloa: T.E.A. Getxo Kirolak
1. Ildo Estrategikoa Kirolaren Sustapena (eta Jarduera Fisikoa)
Finantzaketa-iturriak
Udal-aurrekontua, aurrekontu-aplikazioen arabera
Kostu ekonomikoak
Aurreikusitako kostuak bideratutako aurrekontu-baliabideen gehienekora arte izango dira.
Ekintza-plana
Urteko deialdi baten bidez egingo da.